

# Itsasoan kulunkan

Ane Miren Azkue

Julene Azpeitia ipuin lehiaketa  
1992



Zumaiaiko Udala

*emskar  
txanpa*



# Itsasoan kulunkan

Ane Miren Azkue

Julene Azpeitia 5. ipuin lehiaketa

1992

Zumaiako onenaren saria

Zumaian Julene Azpeitia ipuin lehiaketaren 25. urteurrena ospatzeko egindako digitalizazioaren emaitza, 2012ko irailean.

© Ane Miren Azkue (ipuinarena)

© Zumaiako Udala (argitalpen honena)

Laguntzailea: KUTXA

Behin batean, duela urte asko, XX. mendearen hasieran, kostaldeko herri txiki batean mutiko bat bizi zen bere gurasoekin; mutiko honen izena Ventura zen, bere amak zioenez, izena bere aitonak, aitapontekoak jarri zion nahiz eta apaizak elizan aurpegi txarrez begiratu, egutegi santuan ez baitzen izen hori tokatzen baizik eta Pedro, eta Ventura Pedroren orde... Aitak kontatzen zuenez, ia ordubete egon ziren sakristian bikario jauna eta aitona izenarena moldatu nahian, bikarioak Ventura ezetz, Pedro-Ventura edo Ventura-Pedro izan beharko zuela... Azkenean, aitonak Ventura edo haurra ez zela bataiatua izango mehatxatu zuen bikarioa, eta horren aurrean, Ventura izenez bataiatu zuten haurra; herrian Ventura izena zuen bakarra zen, ez zegoen besterik, oraingoan ere aitona berearekin atera zen.

Venturaren aitona oso ezaguna zen herrian ia beti nahi zuena han nonbait lortzen zuelako, Jonas izena zuen, baina denek Jonas Handia bezala ezagutzen zuten, bere bizitzako urte gehienak itsasoan pasatako gizona, arrantzalea, itsasoa bere zainetan zeramakien gizona. Esaten zutenez, itsasoa ikusi gabe jakiten zuen bere egoera, barea edo mugitua zegoen... Nola? Usaimenari esker, batzuek soinuagatik zela esaten zuten, baina hori gaztea zenean izango zen, ze ikaragarritzko gorreria zuen bere zahartzaroan, baina haren usaimena! hura usaimena hura!! Herriko edozein txokotatik, arnasa sakonki hartu eta: "Barea dago orain, baina kontuz, ze arratsalderako mugitu egingo da, eta arratsean galerna ekarriko du...", eta halaxe gertatzen zen.

Zahartu zenean, itsasora ezin joanik gelditu zenean, beti kaian ibiltzen zen urertzean, hainbeste maite zuen bere itsasotik ahalik eta gertuen, nekatzen zenean, arrantzaleen kofradiaren aurreko aulkietan esertzen zen, itsasoratzerari zihoan edonori haren berri emateko beti prest, bazirudien itsasoa bere barnean zeramakiela, eta bere begi urdin-berdeetan islatzen zela.

Venturari asko gustatzen zitzaion bere aitonarekin kalera joatea, eta Jonas Handia ere oso pozik paseatzen zen portuko sare artean bere biloba txikia eskutik zuela; oinez ikasi orduko hasi zen Ventura egunero bere aitonarekin irteten kalera, han jolasten zuen kofradi aurrean beste haurrekin, tarteka aitonarengana hurbiltzen zen, alboan eseri, eta aitonak beti zuen zerbait kontatzeko, batzuetan asmatu-rikoko ipuinak ziren, beste batzuetan aitonari berari gertaturikoak, abenturak, aitonak leku asko ezagutzen zituen, eta ia toki bakoitzeko abentura bat zuen gutxienez, pila bat kontu! Gainera kontu asko ahazten ari zitzaizkiola esaten zuen Jonas Handiak. Venturari gehien gustatzen zitzaiona bere izenari zegokiona zen; aitonak lehenengo aldiz

kontatu zioneko hura, biak bakarrik zeuden eseririk kofradi aurrean, Venturak sei urte zituen, eta dagoeneko ez zuen bazkalosteko lo-kuluxkarik egiten, eskolara goizez joaten zen, eta arratsaldero aitonaarekin joaten zen kalera, bere hiru anaiak bera baino txikiago ziren, eta etxean gelditzen ziren lotan, geroago amonarekin kaleratzeko.

—Hi Ventura, ba al dakik zergatik deitzen haizen horrela? —galdetu zion Jonas Handiak bere bilobari solasean ari zirelarik

—Bai aitona, zeuk hala nahi izan zenuelako, badakit elizako egutegian ekainak 29a San Pedro eguna dela, eta apaizak Pedro izatea nahi zuela nire izena, baina zuk Ventura nahi eta Venturarekin gelditu nintzela azkenean —erantzun zion bilobak bere izenaren istorioa hor bukatu zenaren ustetan.

Aitonak barre egin zuen bilobak harridura aurpegiz begiratzen zion bitartean; aitona, patxadan, bere pipa zahar hura atera zuen bere alkandoraren poltsikotik, eta tabakoaren bila hasi zen bere praken patriketan; topatu zuen, eta pipa betetzen ari zen bitartean honela hasi zitzaion kontaktzen:

Itsasoan ibiltzen hasi nintzenean gertatu zen, bigarren edo hirugarren urtean, ni oso gaztea nintzen, hoguei urtetik behera nituen; itsasontziaren izena Itsasoko Ama zen, eta nirekin batera beste hamabi lagun aritzen ziren arrantzan, denak gazteak ginen patroia ezik, patroia bera zen ontziaren jabea, Etxe-Txikiko Antonioren aita zen, Joxe.

Hemen gertuan arrantzu gutxi zegoen, eta mila batzuk urrunago joatea erabaki genuen, iparralderantz. Eta halaxe abiatu ginen ilbeltzeko lehen egunetan gure arrantzagune berri hartara, itxaropentsu... Uste bezala, arrain asko topatu genuen, arrainak sumatu, sareak bota eta gainezka jasotzen genituen, batzuetan, sareak hain beteak ikusirik, jasotzean puskatuko genituenaren beldur ibili ginen, baina ez zen hala gertatu. Uste baino lehenago bete genuen itsasontziaren barnealdea; tripulazio dena oso pozik geunden, sekula ez genuen ikusi hainbeste arrain batera itsaso zabalean izan ezik; patroiak zioenez berak bai, ez zen lehenengo aldia Itsasoko Ama hainbestearino betetzen zena, lehen, bera gazteago zenean, nahiko sarri gertatzen omen zen Kantauri itsasoan, itsasontzi guztiek harrapatzen omen zuten arrain asko.

Arrain gehiago gordetzeko lekurik ez genuelarik, bueltako bidaiari egin genion. Bagentozela, ilunabarrarekin batera, hodei beltz batzuk hasi ziren eguzkiaren azken izpi hori-gorritzka haiek estaltzen; denbora gutxi barru trumoiak hasi ziren entzuten, eta berehala euria hasi zen, euriz, haizea, tximistak... Itsaso zeharo harrotu zen, ikaragarritzko olatuak, nik sekula ez ditut berriro halako olaturik ikusi, itsasoaren barnealdetik indar berezi batek bultzatuak ematen zuten, airean altxatu eta ontzi-gainera egiten zuten salto olatuak, beldurgarriak...

—Zuhaitz hori baino handiagoak? —galdetu zion Ventura txikiak, aitona ahotik bota berri zuen keari putz egiten zion bitartean.

—Baaaai, begira Ventura, ikusten al dek Zeruko Izarra itsasontziaren masta? Ba hori baino pixka bat txikiago —erantzun zion aitona momentu horretan orduko olatuak ikusi izan balitu bezala.

Ekaitza ikaragarria zen, itsasoan ikusi dudak ekaitzik gogorrena, Itsasoko Ama egur zatitxo bat besterik ez zen arrats hartan, itsaso amaren haserrean

galduriko egur zatitxoa; oraintxe hara, oraintxe bestaldera, bere norabidea galdua duen hegazti baten antzera zebilen gure itsasontzia. Denok ontziaren barruan geunden, inor ez zen ausartzen ontzi gainera irteten, beno, egia esan, tarteka ez zen ontzi-gainik ikusten, urak estaltzen baitzuen dena. Denok izaturik geunden, itsasontziaren mugimenduari aurre egiteko ahal genuen ertzari eusten genion, ni ohe gainean nengoen etzanda, ohearen alboei eusten ez erortzearren; balantza alde batera eta bestera, eta halako batean, inork nahi ez zuena gertatu zen: kaskoa zulatu zen, eta ez zen ez zulo txikia! Berehala ura sartzen hasi zen, korrika joan nintzen besteei ahalik eta azkarren deitzera:

—Barkua hondoratzera doa, denak kanpora! —oihu egin nien, baina inor ez zen mugitzen.

—Bizkor!, denak kanpora! —agindu zuen Joxek.

Kabinako atea ireki, eta ontzi gainean irristatu arren, ahal nuen bezala salto egin nuen itsasora, eta behin uretan nengoelarik, olatuen artetik ikusi nuen nola apurka-apurka hondoratu zen Itsasoko Ama, tximistapean. Gero gertatu zenaz ez naiz oroitzen, konortetik gabe gelditu bainintzen.

Ez dakit zenbat denbora igaro zen gau hartatik ni esnatu bitartean, begiak zabaldu nituenean eguerdia zen, eguzkia zeruko puntuenik altuenean zegoen, ontzi gainaren edo kubiartaren zatitxo batean nengoen etzanda, ez nuen gogoan nola atera nintzen olatu handi haien artetik ez eta ere nola igo nintzen egur zati haren gainera; itsasoa bare-bare zegoen, ez zirudien itsaso bera; ingurura begiratu nuen, baina ez nuen beste inor ikusten, egur zati batzuk besterik ez zeuden ur-gainean. Oihu egin nuen ea inork erantzuten zidan, baina oihuen ondoren isiltasuna zen nagusi. Non ote ziren besteak? Gerora ere ez zuten beren gorputzik aurkitu, beste hamabiak, itsasontzitik ateratzeko aukerarik ez zuten izango, eta ontziarekin batera hondoratu ziren, horregatik ez ziren azaldu gorputzak.

Ohol gainean nengoelarik, ia mugitzeko indarrrik gabe, txalupa bat ikusi nuen urrunean, hankak zauriz josiak nituen, eta ezin nuen zutitu, baina ahal nuen moduan, oihuka eta besoak astinduz lortu nuen txalupakoak nitaz ohartzera. Txalupa hurreratzen ari zen heinean, bertan hiru gizon zetozeela ikusi nuen, hirurek jo eta ke arraunean nigana ahalik eta azkarren iristeko. Hura poza! Ez nuen indarrrik txalupara igotzeko, eta haietako bat zutitu zen niri txalupara sartzen laguntzeko. Hasi zitzaizkidan hizketan, baina ez nien ezer ulertzen, arabiarrez mintzatzen ziren euren artean, euskara ez zuten ulertzen, baina frantsesez nekien apurrak balio izan zidan zertxobait elkar ulertzeko. Ni oso nekatua nengoen, ia ezin nintzen mugitu, eta txalupan etzan ninduten, azpian sareak ipini zizkidaten, eta gainean estalki bat; hirurak arraunean hasi ziren lehorrerantz, eta nik, nekearen nekez lo hartu nuen.

Esnatu nintzenez, nirea ez zen ohe batean nengoela konturatu nintzen, baina gela hartan ere itsasoa usaintzen zen nire etxean bezala; leiho handi bat zegoen, eta eguzkiaren lehen izpiak sartzen ziren, ohetik altxatzen hasi nintzen leihotik zer ikusten zen begiratu nahian, baina ezin nuen mugitu, bi hankak bendaturik nituen. Orduan oroitu nintzen gertaturikoaz, hiru gizon haiek nola salbatu ninduten... Pentsatzen ari nintzelarik gelako atea ireki zen, eta neska gazte bat sartu zen gelara, begiak zabalik nituela konturatu zenean korrika atera zen, eta berehala bueltatu zen etxeko guziekin: aita, ama, itsasotik atera ninduten bere hiru anaiak eta ahizpa txikia. Guziek aho zabalik begiratzen ninduten, mirari baten lekuko balira bezala; denak oso pozik zeudela zirudien.

Familia eta nire artean, hizkuntza zen oztopo bakarra, baina nire frantses kaxkarrarekin eta keinuen bidez egiten genuen ulertzeko adina; honela jakin nuen nire salbatzaileen izenak Vensadi, Turena eta Rasera zirela, hirurak ere izen judutarrek. Aita arabiarra zen, eta horregatik denek etxean arabiarrez egiten zuten nahiz eta denek frantsesa jakin. Ia bi hilabete egin nituen famili honen etxean ongi sendatu bitartean; denak nirekin oso ondo portatu ziren, baina batez ere eskertzen nituenak Vensadi, Turena eta Rasera ziren, gizon oso jatorrak; gure artean gauza asko ziren ezin genituenak adierazi hizkuntzak zituen zailtasunagatik, baina egia da gure artean beti ari ginela hizketan.

Geltokira trena hartzera lagundu zidaten goiz hartan, trena martxan jartzen ari zen bitartean, zera agindu nien hiru anaiei, nire lehenengo semeari Ventura jarriko niola, beraien izenen hasierek osaturik zegoen izena, ez dakit ulertu zidaten ala ez, uste dut baietz; beti gogoan izango nituela esan nien, egunen batean zerbait behar bazuten etortzeko gure herrira, eta lagunduko niela. Famili osoak irribarrez agurtu ninduen begietan malkoak zituztelarik, nik ere, esku batekin agur esaten nien bitartean bestearekin nire masailetan behera zetozen malkoak kentzen saiatzen nintzen.

Eta horrelaxe egin nuen etxerantz bueltako bidaia, trenez; pentsa, bi hilabete lehenago itsasontzia gainezka genuelarik hasitako bidaia, jendez gainezka zegoen tren batean jarraitu nuen; bi egun pasa egin nituen bidaiatzen, herrira egunsentiarekin batera iritsi nintzen, gau guzia oinez pasa ondoren, kaleetan ez nuen inorekin egin topo, kaian ez zegoen ontzirik, denak itsasoan izango ziren. Etxeko eskailerak igotzen ari nintzelarik, amari emango nion ikaraldiaz ohartu nintzen, ze judutarren etxean egon nintzen bi hilabete horietan ez zuten nire berririk izan, tripulazioko beste lagunekin batera itsasoan "gelditu" nintzela uste zuten. Baina beno, etxeko atea jo nuen, eta amak zabaldu zuen atea, esku batean kandela bat zeramalarik, hitzik gabe gelditu zen hasera batean, baina berehala hasi zen deiadarka etxeko guztiak esnatuz, ondorengo orduak sukaldean pasatu genituen etxeko denok. Nik, nire azken bi hilabete haiek nolakoak izan ziren kontatu nien, eta beraiek herri osoan nagusitu zen nahigabearen berri eman zidaten; dagoeneko, herriko bertsolariak bertso-paperak eginik zituen, eta herriko haur, gazte eta zahar guztiek abesten zituzten, gehienek buruz ikasiak zituzten:

Kanta triste batzuek  
arrantzallari  
uste degu dirala  
jartzia komeni,  
oiek daukaten bizi  
negargarriari,  
izan gaitezen danok  
oien errukarri,  
biyotzez eskatuaz  
Jaungoiko Jaunari.

Ai, arrantzaliaren  
bizi penosua!  
Ofiziyu ori ez da  
inbidiosua,  
oien irabaziya  
ain da kostosua;  
gure Jaungoiko maite  
amoriosua,  
arren bedeinka zazu  
berriz itxasua.

Oien biziya beti,  
dudarik ez dago,  
nahiz osasuna izan  
arriskuan dago;  
egon arren denbora  
kalman eta klaro  
derrepentian txarra  
sartutzen bazaio,  
galtzen dira egin arren  
makiña bat saio.

Jaunari biaiogu  
barrendik eskatu,  
geiago orlakorik  
ez dedin gertatu;  
bañan biyotz-bihotzez  
ondo errezatu,  
itxasora juatian  
danak alkar artu,  
lagun faltan ez gaitzan  
guztiyok tragatu.

Honela abestu zituen Jonas Handiak garai hartako bertsoak, gehiago ere bazirela esan zion Venturari, denera hamabi, baina hainbeste urte pasa ondoren, ez zituen gogoan; geroago, amona etortzen zenean berari galdetzeko agindu zion haurrari, Jonas ziur zegoen bere emazteak gogoan izango zituela bertso haiek.

Urte batzuk beranduago, Jonas Handia ezkondu egin zen, eta ondorengo urteetan sei alaba izan zituen, zein baino zein politagoak, baina seme bat nahi hari Ventura jartzeko eta semerik ez alajaina!! Urte batzuk beranduago jaio zen zazpigarren alabari, semerik ez izateaz etsita, Ruth izena jarri zion, judutar familia hartako alaba gazteenaren izena, baina Jonas ez zen konforme gelditu, Vensadi, Turena eta Raserari agindurikoa ez zuen bete.

Ventura txikia, Jonasen alaba zaharrenaren lehen semea zen, Jonasen lehenengo biloba, eta horregatik jarri zion Ventura izena, bere ondorengo lehenengo mutila zelako, urte asko pasa izenagatik, azkenean bete zuen bere nahia, agindurikoa bete zuen.

Venturak betidanik miresten zuen bere aitona, baina egun hartatik aurrera, oraindik miresgarriagoa iruditzen zitzaion, haurrak bere burua aitonaen istorio bateko zati garrantzitsu bat bezala ikusten zuen.

Haurrari, behin eta berriro bere izena lau haizetara oihukatzea gustatzen zitzaion, batez ere portuko barratik itsas alderantz begiratzen zuenean, inguruan zituen kaioak garrasika ari ziren bitartean, berak bere izena oihukatzen zuen: VEN TU RA!! VEN TU RA!!, itsasoak bakarrik entzuten zion. Ventura txikiaren ustetan, agian oraindik Vensadi, Turena eta Rasera arrantzan ibiliko ziren, eta nork daki, behar bada itsasoak kontatuko zieten nola Jonasek Ventura izeneko bilobatxoa zuen; hala gertatuko zela amesten zuen.

Pasa ziren urteak, eta Ventura gaztea, bere aitona bezala itsasoan hasi zen lanean, itsasontzi handi batean; bere aitak ez zuen nahi semea itsasora joaterik, nahiago zuen bera bezala arotza izatea, aitak bazekien ongi arrantzaleen bizitza gogorra zela, baina ez zuen lortu semea lehorrean gelditzerik. Jonas Handiaren antzera, Ventura ere arrantzale bikaina zen, patroi guziek nahi zuten Ventura beren tripulazioan eduki. Langilea izateaz gain oso gizon ausarta zen, eta itsaso handian ekaitz gogorra izanagatik beti zegoen zutik eta adi, norbait itsasora erortzen bazen ere ateratzeko prest...

Gaueko hamaikak dira, gaur besteetan baino gehiago luzatu naiz gaueroko istorioarekin, nire alabatxoa erdi-lo dago, bere besoak izara azpian sartu eta ondo estali dut, argia itzali eta ahalik eta isilen hasi naiz gelako atea ixten, nire alabatxoak deiadar egin dit:

—Ama!, ama!, eta nik zergatik izena dut Itsaso?

—Orain lo egin ezazu eta galdetu iezaiozu bihar aitona Venturari...